

FUTBOLA

Bixente Biurrun: «Clemente lan bikaina betetzen ari da»

Españoleko atezainari gol bakarra sartu diote Sarria futbol zelaian

Lau urte bete zituen Bixente Biurrunek Athletic taldean. Gaur egun, hogeitamaika urte ditu eta 1994ra arte sinatu zuen Españolekin. Biharkoa partidu berezia izango da lehen mailako euskal talde guztietan egon den gizon honentzat, kideak izandakoekin topatuko bait da.

RAMON BASALDUA / BILBO

Futbolari profesional baten bizitzan taldez aldatzea ia eguneroko gertakizuna bihurtu da, eta bestela Bixente Biurruni galde. Atezain honek, Realeko behe mailetan egon ondoren, Iruñeko Osasuna taldera alde egin zuen. Urte batzuk beranduago, Pedro Aurtenekek zuzentzen zuen direktibak Biurrun fitxatzeko erabakia hartu zuen, Andoni Zubizarreta Barcelonara traspasatu zuten eta. San Mamesen bete dituen lau urteetan, goi mailako atezaina dela erakutsi du Sao Paulon jaiotako mutil honek. Iaz Español taldera etorri eta bertan jarraitzeko itxaropena du 1994 urtera arte.

Honela ikusten du Biurrunek gaur egungo Athletica: «Iaz baino hobeto ikusten dut. Talde horren betiko ezaugarria izan den indarra eta etengabeko borroka berreskuratu ditu Javier Clementeren eskutik. Gizon hau betetzen ari den lana oso ona da,



Bixente Biurrun San Mamesera itzuliko da igandean.

mutil gaztez eta beterranoz osatutako talde honi errendimendu ona ateratzen bait dio. Zurigorriak, irabazleen mentalitatearekin zelairatzen dira eta UEFA postuetan amaitu beharko lukete.

BI TALDE EZBERDINAK Español eta Athletic taldeak guztiz ezberdinak dira. Kataluniakoan ari diren jokalariek, Espainia osotik etorritakoak dira. Athletican bestalde, behe mailak biziki zaintzen dira. Luis Aragones entrenatzaileak bloke sendoa osatu duela

argi gelditu da orain arte liga txapelketan Sarrian jokaturako partiduetan gol bakarra hartu bait dute. «Denboraldi hasieran jarritako helburuak betetzen ari gara. Talde askotatik etorritako mutilak bildu gara eta oso zaila zen elkar ulertzea. Dena den sorte handia izan dugu, Luis Aragones gure entrenatzaile izatearekin, beroneri esker denboraldi ona burutzen ari gara eta».

Españolek erabiltzen duen joku sistima atzekalde sendo batetan oinarritzen da. Albesa, Mino eta Sergio Biurrunen aurrean kokatzen dira.

Agirre eta Mentxakaren arteko zalantza du orain Boronatek

MIKEL ARRIETA / DONOSTIA

Johan Cruyffen Barcelona gaur arratsaldean helduko da Donostiara. Barcelonakoak, hegazkinez etorriko dira Bilbora eta handik Donostiara. Entrenatzaile holandarrak atzoko entrenamenduaren ostean egin zuen deialdia, eta honako jokalariek hauek izango dira Donostian izango direnak: Zubizarreta, Soler, Lopez Recarte, Nando, Amor, Alexanco, Serna, Bakero, Urbano, Eusebio, Goikoetxea, Laudrup, Salinas, Begiristain, Agnoi eta Herrera.

Cruyffek ez du oraindik hasierako hamaikakoaren berri eman, baina honako hau izan daiteke: Zubizarreta; Nando, Alexanco, Serna; Amor, Bakero, Eusebio, Goikoetxea; Laudrup, Salinas eta Begiristain. Koeman eta Stoichkov atzerritarak gabe ere talde indartsua aurkeztu du Barcelonak. Espainiako Ligako lehen postuan aurkitzen den talde honek, partidu bakar bat galdu du etxetik kanpo, Atletico de Madrid taldearen aurka Koeman lesionatu zenean, eta beste bat berdindu, Osasunaren aurka hain zuzen ere.

AGIRRE EDO MENTXAKA Realak bestalde atzo goizean entrenatu zuen Zubietan normaltasun osoz. Bere aldetik diharduen Lunbrersek ezik, beste jokalariek guztiek normaltasun osoz entrenatu zuten.



Miguel Fuentes.

Fuentes hamaikakoan sartuz gero, eta horrela izango da, gizon bat utzi behar du Boronatek aulkian. Printzipioz Mentxaka edo Agirre izango dira. Normalena lasartearra aulkiratu eta Mentxaka berriz ere zelai erdian kokatzea litzateke, baina Agirrek ere partidu politak egin ditu azken ihardunaldietan.

Donostiarrek gaur entrenatuko dute berriz ere Zubietan Marco Antonio Boronat entrenatzailearen aginduetara. Boronatek entrenamendu ostean emango du deialdia, nahiz eta hamaikakoa jakiteko biharko partidu bitartean itxaron beharko dugun.

Zabaltzak ezin izango du igandean Migel Sola erdilaria zelairatu

A. BARANDIARAN / IRUÑEA


Miguel Sola da igandeko partidurako Pedro Mari Zabaltzak duen baja bakarra, txantrearrak ezin izan bait ditu bere arazo fisikoak konpondu. Igandera arte, bestalde, ezin esan Hugo Sanchezek jokaturiko duen ala ez, orduan bilduko bait da Apelazio Batzordea Real Madridek paratu duen errekurtsoa erabakitzeke. Ordezkoa, Losada, prest dute bada ez bada.

Herenegun Peña Azagresaren kontra Osasunak jokatu zuen partiduan, garbi ikusi zen gorritxoaren plantilan postu bat eskuratzeko borroka egunerokoa dela. Azagran zelairatu zirenak jo ta ke ibili ziren, eta 12-1 irabazi zuten. Pedro Mari Zabaltza pozik agertu zen partiduaren ondoren, ez hainbeste emaitzaz, nola jokalariek erakutsi zuten gogoaz, honek lasaitasuna ematen bait du titularren ordezkariak aukeratu behar izatean.

DE LUISEK KOLITISA AHAZTUTA Atzo egin zuten saioan, bestalde, ondo aritu zen plantila osoa, eta Sola ezik, denak egongo dira

prest Bernabeu futbol zelaira ateratzeko. Gehien kezkatzen zuena De Luis atzelaria zen, ostegunean ezin izan bait zuen parte hartu entrenamenduan, kolitisa zela eta. Hala ere, atzo normaltasunez entrenatu zuen, eta ez omen du arazorik izango jokatzeko. Sola, ordea, eta kluban hasiera batean jokatzeko moduan egongo zelakoan bazeuden ere, ez da Madriler joango, minek hor diraute oraindik eta.

Zabaltza atzoko Taxoareko entrenamenduaren ondoan aurreko egunetan baino baikorrago agertzen zen igandeko partiduari begira, eta hori bere gizonengan duen konfiantza ote zen galdetzerakoan, zera erantzun zuen entrenatzaile nafarrak «Hori beti gertatzen da. Partidua hurbildu ahala, beti garbiago ikusten dituzu zerbait positiboa lortzeko daukazun aukerak. Jakin badakigu Real Madrid zaila dela, baina lehen maila honetan ez dago talde errezik, eta igandeko partidua besteak bezalakoa da zerbait lortu ahal izateko». Gainera, gabonetako opariak ekarri nahi ditu Zabaltzak zaleentzat: «puntuaren bat ekarri gero, afizioa biziki poztuko litzateke».



*Athletic-en izenean
bake eta zorion
mezua helerazi nahi dizugu.
1991 arrakastatsua
izateko nahiarekin batera.*

1990eko GABONAK